



# **DEBAKO UDALAREN ETA ITZIARKO AUZO- UDALAREN ARTEKO ESKUMEN-ARAU BIDEA ARAUTZEN DUEN ADMINISTRAZIO-HITZARMENA**

Itzianren, 2020ko abenduaren 18an

## **BILDU DIRA**

Alde batetik, Gilen Garcia Boyra, Debako Udaleko alkatea.

Eta bestetik, Arantza Egaña Aldalur, Itziarko Toki Erakunde Txikiko auzo-alkatea (Itziarko Auzo-Udala).

## **PARTE HARTZEN DUTE**

Lehenengoak Debako Udalaren izenean eta hura ordezkatzuz, Udalbatzaren Osoko Bilkuraren Erabaki bidez hitzarmen hau sinatzeko ahalmena eman zitzaiolako, 2020ko abenduaren 17an .

Bigarrenak, Itziarko Auzo-Udalaren izenean eta hura ordezkatzuz, hitzarmen hau sinatzeko ahalmena duelako, erakunde horretako, 2020ko abenduaren 9ko, Auzo Batzordearen erabaki bidez.



## AZALDU DUTE

I. Urtarrilaren 27ko 3/2015 Foru Dekretuaren bidez, Itziarko toki-erakunde txikia (Itziarko Auzo-Udala) sortu zen Gipuzkoako Lurralde Historikoko Debako udalerrian, lurralde horretako Toki-administrazioen arrazionalizazio- eta iraunkortasun-neurriak aplikatzean foru-berezitasunari buruzko azaroaren 17ko 13/2014 Foru Arauaren 1. artikuluari dagokionez Gipuzkoako udal-mugapeei buruzko martxoaren 17ko 2/2003 Foru Arauaren III. tituluan xedatutakoarekin bat etorriz.

II. 3/2015 Foru Dekretuaren laugarren xedapenaren arabera:

**Itziarko Toki Erakunde Txikiak honako eskumen hauek izango ditu, pixkanaka bere gain hartuko dituenak, Debako Udalbatzak 2014ko ekainaren 17an hartutako Erabakian eta 2014ko ekainean "Itziarren tokiko entitate deszentralizatu bat eratzea justifikatzen duen txostena" agirian aurreikusitakoarekin bat etorriz:**

- Hirigunearen-mantentzea: bideak, bide publikoak, plazak, parkeak, berdeguneak eta hiri-altzariak administratzea eta kontserbatzea.
- Erabilera publikoko higiezinak, instalazioak eta azpiegiturak administratzea, mantentzea, garbitzea eta gordetzea.
- Landa- eta mendi-garapena: landa-bideak, etxeetara eta baserrietara iristeko bideak eta mendiko bide publikoak zaintzeko eta mantentzeko lanak.
- Kaleak garbitzea.
- Argiteria publikoa.
- Hilerri-zerbitzua.
- Hondakinen bilketa (industrialdea barne).



DEBAKO UDALA



- **Jaiak eta muntaketak.**
- **Kultura, euskara eta aisialdia sustatzeko eta dinamizatzeko zerbitzuak.**
- **Ordena publikoa eta herritarren segurtasuna.**

III. Halaber, 3/2015 Foru Dekretuaren zortzigarren xedapenak honako hau ezartzen du:

**Debako Udaleko Osoko Bilkuraren 2014ko ekainaren 17ko Erabakiaren bosgarren atalean ezarritakoaren arabera, bi aldeen artean formalizatu beharreko hitzarmenaren bidez, udalak toki-erakunde txikiari eskuordetuko dizkio "Itziarren tokiko entitate deszentralizatu bat eratzea justifikatzen duen txostena" dokumentuan aipatutako eskumenak, honako esparru hauetan:**

- **Hirigintza-diziplina.**
- **Gizarte-zerbitzuak.**
- **Osasuna.**
- **Turismoa, ingurumena eta geoparkea.**
- **Herritarrei arreta ematea, toki-erakunde txikiaren interes eksklusiboko zerbitzuak emanez.**

IV. Bestalde, Debako Udaltzaren Osoko Bilkuraren 2014ko ekainaren 17ko Erabakiaren laugarren eta bosgarren atalek ezartzen dute nahitaez formalizatu behar direla erakunde berriaren berezko zein eskuordetu beharreko eskumenak hartzea arautzen duten hitzarmenak, "Itziarren tokiko entitate deszentralizatu bat eratzea justifikatzen duen txostena" izeneko azterlanean xedatutakoaren arabera.

V. 2018an, berezko eskumenak eskuratzeko hirugarren fasea amaitu zen, eta, orduetik, finkatze-fasean gaude. Fase honetan, eta berezko eskumenei dagokienez, Itziarko Auzo-Udala erabat burujabea da eskumen horiek zuzenean kudeatzeko, Debako udalarekin edo beste administrazio batzuekin



DEBAKO UDALA



lankidetzan, edo hirugarrenekin kontratatuta, indarrean dagoen legeriak ezarritako mugak baino ez dituela.

VI. Debako Udalaren eta Itziarko Auzo-Udalaren borondateaenez 3/2015 Foru Dekretuan aitortutako eskumeneren eskuordetza osatzea, hitzarmen honetan horien eskualdatzea erabaki da.

Era berean, kontuan hartu behar da dokumentu honetan Itziarko Auzo-Udalari esleitutako eskumenerik ez dutela izaera mugatzailerik; beraz, etorkizunean aplikatu beharreko araudian sartzen diren beste eskumen batzuetara zabaldu ahal izango dira, eta bi erakundeen arteko adostasunez zehaztu beharko dira.

VII. Horrek guztiak koordinazio-neurri egokiak hartzea ekarri beharko du, antolaketa-egituren arrazionalizazioan eragina izan dezaten. Baita eskuordetzen diren eta/edo bere gain hartzen dituzten eskumeneren arrazionalizazioan ere, toki-administrazioei aplikatzen zaizkien finantza-eraginkortasun, -egonkortasun eta -iraunkortasuneko printzipioekin bat etorritik. Arrazionalizazio hori, beraz, honako hauek arautuko dute: efizientzia beste administrazio batzuen eskumenerikiko bikoiztasunak saihestea izango da; aurrekontu-egonkortasuna, egitura-oreka edo -superabita, eta finantza-iraunkortasuna. Oraingo eta etorkizuneko gastu-konpromisoak finantzatzea, defizitaren eta zorraren muga barruan.

Horregatik guztiagatik, hitzarmen hau formalizatzea erabaki dute, honako klausula hauek kontuan hartuta:



## HIZPAKETAK

### **LEHENENGOA.- XEDEA**

Hitzarmen honen xedea Debako Udalaren eta Itziarko Auzo-Udalaren berezko eskumenen araubide juridikoa aitortzea da, baita Debako Udalaren 2014ko ekainaren 17ko Akordioaren bosgarren atalean aurreikusitako eskumen berriak eskualdatzea ere.

Itziarko Auzo-Udalak nortasun juridikoa eta gaitasun osoa izango ditu bere eskumenak betetzeko. Eskumen horiek betearaztea legezketasun-printzipiora egokitu beharko da, eta Debako Udala edozein erantzukizunetik salbuetsiko da, baita erantzukizun subsidiariorik ere, eskumen horiek behar bezala ez betetzeagatik egiten diren ekintza edo ez-egiteengatik.

### **BIGARRENA.- TRANSFERITUTAKO ONDASUNAK ETA XEDAPEN-EGINTZAK**

Eskualdatutako ondasun publikoak xedatzeko egintza orok Debako Udalaren legezko baimena izan beharko du, efikaza eta betearazlea izan dadin.

### **HIRUGARRENA.- BEREZKO ESKUMENAK ETA HORIEN KUDEAKETA**

Itziarko Auzo-Udalak bere gain hartzen ditu, 2018az geroztik, urtarrilaren 27ko 3/2015 Foru Dekretuan berezkotzat emandako eskumenak, kudeaketa-modu honekin:

1. Oro har, Itziarko Auzo-Udala arduratzen da kanpoko obra eta zerbitzuen kontratazioa kudeatzeaz, Debako Udaleko dagokion sailaren



DEBAKO UDALA



aholkularitzarekin, teknikari eskudunak abalaturako beharren txostenaren nahitaezko justifikazioarekin eta idazkariaren eta kontu-hartzailearen legezotasunaren kontrolarekin, Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legean eta gainerako araudian ezarritakoa betez.

2. Zehazkiago, eta zortzigarren estipulazioan azalduko den osagarritasunari kalterik egin gabe, honako hau ezartzen da:

a. Itziariko Auzo-Udalaren aurrekontuaren kontura ordainduko da transferitutako eraikin publikoak mantentzeko eta konpontzeko behar den materialaren erosketa, bai eta energia elektrikoa eta ur-hornidura, garbiketa eta erabileratik eratorritako beste batzuk ere.

b. Hilerri-zerbitzuei dagokienez: hondakinak errausteko eta hilerria konpontzeko gastuak.

c. Berdeguneetan, Debemengo ongariak bere kontura izango dira.

d. Kale-garbiketan eta zabor-bilketan, industrialdea barne, Debabarrena Mankomunitateari ordaintzea.

e. Jaietako muntaietan, Lasturko eta Itziariko zezen-plazen muntaia kontratatzea.

f. Baita hiri-altzariak konpontzea eta obra txikietarako materialak erostea ere.

g. Baserrietara eta basoetara iristeko bideak mantentzea, sasiak garbitzeko makinen eta elurra kentzeko makinen kostua.

h. Argiteria publikoa: Mantentzeko eta, hala badagokio, hobetzeko materiala hornitzeko eta erosteko gastuak. Gabonetako eta industrialdeko argiteria.



DEBAKO UDALA



i. Kultura arloan, Itziarko Auzo-Udalak kudeatuko ditu jaiak eta kultura-baliabideak, Debako Udaleko dagokion sailaren aholkularitzarekin. Zehazki, hiriguneko, beste auzo batzuetako eta San Isidroko jaiak; haurrentzako jarduerak eta azoka kudeatuko ditu, eta bere kontura izango da horien kostua.

j. Kirola eta Gazteria arloan, Debako Udaleko dagokion sailaren aholkularitzarekin, gazteentzako kirol-jarduerak eta jarduerak antolatzea. Berariaz ordainduko dira Zabalsoro eta Lasturko gimnasia-gela eta frontoiak alokatzeko eta mantentzeko gastuak, bai eta Kardantxulo egunetik eta kirol-ekipamenduen horniduratik eratorritakoak ere.

Eskola-kirolaren antolaketa Debako Udaleko Kirol eta Gazteria Zerbitzuak koordinatuko du.

k. Euskara eta Hezkuntzan, euskararen normalizazioaren arloan, Debako Udaleko euskara-arduradunaren bitartez, ahaleginak egingo dira udalerrri osorako hizkuntza sustatzeko jarduerak toki-erakunde txikiaren eremu osoan ere antola daitezen.

Itziarko Auzo-Udaleko ordezkariak hezkuntzako foroetan parte hartuko dute. Bereziki, eskolaz kanpoko jardueretan, guraso-eskoletan eta hezkuntza-eskaintzan egindako hobekuntzekin lotutako alderdietan.

Eskola mantentzea, konpontzea eta garbitzea, lehen adierazitako moduan, bai eta erabilerak eragindako gastuak ere.

Eskolan konponketa- eta inbertsio-gastuak badaude, Itziarko Auzo-Udalaren aurrekontuaren kontura ordainduko dira.

l. Herritarren segurtasunari eta trafikoaren eta polizia-zerbitzuen antolamenduari dagokienez, Debako Udaleko udaltzainek egingo dituzte, Itziarko Auzo-Udalarekin koordinatuta.



## **LAUGARRENA.- ESKUORDETU BEHARREKO ESKUMENAK ETA HORIEN KUDEAKETA**

Eskuordetu beharreko eskumenak urtarrilaren 27ko 3/2015 Foru Dekretuaren zortzigarren estipulazioan eta "Itziarren tokiko entitate deszentralizatu bat eratzea justifikatzen duen txostenaren" bosgarren atalean jasotakoak dira (2014ko ekaina). Beste eskumen batzuk emateko, beharrezkoa da Debako Udalak eta Itziarko Auzo-Udalak horri buruzko legezko erabaki bat hartzea.

Era berean, aplikagarriak izango dira, oro har, berezko eskumenen atalean kanpo-kontratazioari dagokionez azaldutako mugak eta formak, eta zortzigarren estipulazioan aurreikusitakoarekin osatuko da, eragiten dion guztian.

Horrela:

- **Hirigintza-diziplinak**, hirigintza-antolamenduaren berme eta babes gisa ulertuta, obra txikietarako hirigintza-lizentziak emateko ahalmena ekarriko du, baita obra txikiei lotutako jarduera-lizentzia ere, eta, ondoren, egindako obren gaineko kontrola. Era berean, omisioengatik eta/edo ez-betetzeengatik zehapenak ezartzea, aipatutako mugekin, eta industrialdeari dagozkionak izan ezik.

Nolanahi ere, nahitaezko izapidetze administratiboak, Debako Udalean xede horretarako atxikitutako teknikariak egingo ditu. Eskabideak eta egin beharreko gainerako administrazio-izapideak Debako Udalean ez ezik, Itziarko Auzo-Udalan bertan ere aurkeztu ahal izango dira.

Debako Udalaren eskumenekoak diren eta Itziarko Auzo-Udaleko lurralde-eremuari eragiten dioten hirigintza- eta jarduera-lizentziei buruzko





DEBAKO UDALA

erabakietan, bi erakundeen artean lan egingo da akordioak lortzen saiatzeko.

Era berean, bi erakundeen artean lan egingo da etxebizitza publiko eta babestuen sustapena, bide publikoetako eta eraikin publikoetako obra publikoak eta bide publikoen okupazioa bultzatzeko.

- **Gizarte-zerbitzuak** Debako Udalarekin koordinatuta eskainiko dira beti, eta arreta berezia eskainiko zaie oinarrizko gizarte-zerbitzuei, etxez etxeko laguntzakoiei, hirugarren adinekoei eta beste batzuei, hala nola, prebentzioari, minusbaliotasunari, bizikidetzari eta gazteei.
- **Osasuna.** Itziarko Auzo-Udalak esku hartuko du Itziarko biztanleei lehen mailako arretako osasun-zerbitzuak ematearekin lotutako erabakietan. Itziarko osasun-zentroa mantentzeko gastuak Itziarko Auzo-Udalak kudeatu eta bere aurrekontuaren kontura ordainduko dira.
- **Turismoa, Landa Garapena eta Geoparkea.** Aurreikusten da Itziarko Auzo-Udalak parte hartuko duela turismoari, ingurumenari eta Geoparkearen proiektuari buruzko erabakietan. Turismoa, ingurumena eta Geoparkea sustatzeko baliabide ekonomikoak Debako Udalak kudeatuko ditu.
- **Herritarrei arreta** ematea Itziarko Auzo-Udalaren interes eksklusiboko zerbitzuak emanez, Debako Udalarekin koordinatuta. Itziarko biztanleek beren eskumeneko udal-izapideak bete ahal izateko zerbitzuak antolatu eta eskaini ahal izango dira.  
Horretarako, Debako Udaleko administrari edo administrari laguntzaile baten laguntza jasoko du.  
Itziarko Auzo-Udalak bere inprimakiak izango ditu, bere anagrama eta izen propioarekin.





DEBAKO UDALA

Era berean, espediente propioak eta nomenklatura propioa izango ditu bere espedienteen barne-kudeaketarako.



## **BOSGARRENA.- BESTE AHAL BATZUK**

a. Itziarko Auzo-Udalak toki-erakundeentzat berariaz aurreikusitako laguntzak eta diru-laguntzak eskatu ahal izango ditu, Debako Udalari aldeztu aurretik jakinarazita. Itziarko Auzo-Udalak zuzenean edo Debako Udalaren bidez jaso ditzakeen dirulaguntzen eta laguntzen izapidetzea eta jarraipena Itziarko Auzo-Udalak berak egingo du. Beharrezkoa izanez gero, diru-laguntzaren edo laguntzaren izaera atxikita geratzen den udaleko sailak aholkua eman ahal izango dio, betiere hartutako erabakien eta Itziarko Auzo-Udalak ezarritako jarraibideen arabera jardunez.

b. Itziarko Auzo-Udalak, Debako Udalari aldeztu aurretik jakinarazita, laguntza-akordioak egin ahal izango ditu bere eskumeneko zerbitzuak ematen dituzten udalaz gaindiko erakundeekin, Debako Udalak horietan parte hartzen ez duenean.

c. Itziarko Auzo-Udalak politika aktiboko neurriak ezarri ahal izango ditu, Debako Udalarekin adostuta, berdintasunarekin, haurrekin, gazteekin eta immigrazioarekin zerikusia duten gaietan.

## **SEIGARRENA.- ESLEIPEN EKONOMIKOEI BURUZKO IRIZPIDEAK**

Itziarko Auzo-Udalak baliabideen gainean dituen eskumen eta kudeaketa mailaren arabera zehaztuta daudenak izango dira, Debako udalerrian Itziarko Auzo-Udala sortzeko onartutako urtarrilaren 27ko 3/2015 Foru Dekretuaren III. eranskinean jasotakoak; parte hartzen duten alderdiek aitortzen dute



DEBAKO UDALA



ezagutzen dituztela eta, beraz, ez dela beharrezkoa hitzarmen honetan jasotzea.

Dagozkion diru-esleipenak, helmuga finalista izango dutenak, behar bezala bete eta kontrolatze aldera, adierazten da Debako Udaleko idazkariak eta kontu-hartzaileak Itziarko Auzo-Udalan ere beteko dituztela eginkizun horiek, eta Itziarko Auzo-Udalari dagokiola, bere aurrekontuaren kontura, sortzen den produktibitate-osagarria ordaintzea, zazpigarren eta zortzigarren hizpaketetan adierazitakoaren arabera.

Itziarko Auzo-Udalaren urteko aurrekontuak egiteko, kontu-hartzaileak Debako aurrekontuaren zenbateko zenbatetsia emango dio Itziarko Auzo-Udalari. Ondoren, Itziarko Auzo-Udalak bere aurrekontua onartuko du eta Debako Udaleko Ogasun Batzordean aurkeztuko du. Ogasun Batzordearen aldeko txostena jaso ondoren, Debako Udalaren aurrekontuak onartzeko Debako Udalak deitutako osoko bilkuran aurkeztuko da.

## **ZAZPIGARRENA.- ESLEIPEN EKONOMIKOAK EGITEKO EPEAK ETA MODUA.**

Itziarko Auzo-Udalak Debako Udalaren aurrekontu-esleipenak jasoko ditu, urtarrilaren 27ko 3/2015 Foru Dekretuaren 3. eranskinean jasotako formularen eta zehaztapenen arabera kalkulatuta.

Debako Udalak Itziarko Auzo-Udalaren kontuan ordainduko du, ekarpen arrunt gisa, hilabete bakoitzaren 25ean, urteko aurrekontuetan onartutako esleipenaren 12/1aren arabera. Zenbateko hori urtero eguneratu beharko da, aurrekontu berriaren arabera.



DEBAKO UDALA



Aparteko ekarpenei dagokienez, aurreikusi diren eta hartutako ordainketa-betebeharrak mugaeguneratzen diren heinean.

Itziarko Auzo-Udala arduratuko da bere gain hartutako eskumenak baliatzeak sortutako gastuak ordaintzeaz, Debako Udaletik jasotako esleipenen bidez. Bestalde, Debako Udalak utzi egingo dio eskualdatutako zerbitzu horiek ordaintzeari.

**ZORTZIGARRENA.-** Horrela, aurreko estipulazioan azaldutakoaren ondorioetarako, Itziarko Auzo-Udalari prestazio espezifiko hauek emango zaizkio:

**A) Idazkaritza:** Udaleko Idazkaritzaren funtzio publikoaz gain, Itziarko Auzo-Udalaren egintzen fede publikoa eta legezketasunaren nahitaezko bermea barne hartzen dituen, honako hauek:

1. Debako Udalaren Unitate administratiboetako esku-hartze tekniko espezializatua eskatzen duten administrazio-prozedurak bideratzea eta haien jarraipena egitea (hirigintza, obrak eta zerbitzuak, gizarte-zerbitzuak, hezkuntza eta euskara, turismoa eta ingurumena, kultura, gazteria eta kirola, idazkaritza, ondarea eta udaltzaingoa).
2. Administrazio-laguntza ematea auzo-batzarrari, auzo-batzordeei, auzo-alkateari eta Itziarko Auzo-Udalaren beste batzorde sektorial batzuei.
3. Itziarko Auzo-Udalak zuzenean edo Debako Udalaren bidez jaso ditzakeen dirulaguntzen eta laguntzen jarraipena egitea eta horiek izapidetzea.
4. Itziarko Auzo-Udalaren funtzionamendurako beharrezkoak diren gainerako administrazio-zereginak garatzea eta horien jarraipena egitea. Herritarrentzako arreta-zerbitzu baten eta leihatila bakarraren bidez, aurrez



DEBAKO UDALA



aurre, eta telefonoz edo posta elektronikoz, herritarrek dagokion administrazioarekin, hau da, Itziarko Auzo-Udalarekin edo Debako Udalarekin, modu erosoan izan dezaten sarbidea, komunikazioa eta harremana.

Itziarko Auzo-Udalaren zerbitzu hori herritarrentzako erreferentziatzeko zerbitzua izango da, eta bertatik, modu integratuan, esku-hartze tekniko espezializaturik behar ez duten udal-zerbitzu gehienak eskainiko dira. Zehazki:

a. Informazio-zerbitzua: zerbitzu publikoei buruzkoa, administrazio-prozedurei buruzkoa, hasitako prozeduren izapidetze-egoerari buruzkoa.

b. Kudeaketa-zerbitzua: administrazioari zuzendutako idazkien sarrera-erregistroa izatea; administrazio-unitate arduradunarekin hitzartu diren prozeduren hasierako dokumentazioa jasotzea; Itziarko Auzo-Udalaren zerbitzuen funtzionamenduari eta kalitateari buruzko ekimenak, iradokizunak, abisuak, kexak, erreklamazioak eta herritarren esker onak jasotzea; Itziarko Auzo-Udaleko arduradun politikoekin eta Udaleko teknikariek hitzordua eskatzeko zerbitzua.

**B) Kontuhartzailtza:** Itziarko Auzo-Udalak kontzeptu guztiengatik jasotzen dituen diru-esleipenak kontrolatu, fiskalizatu eta horien jarraipena egiteko funtzio publikoa betetzea.

**C) Hirigintza:** Aholkularitza teknikoa eta administrazio-laguntza ematea Itziarko Auzo-Udalaren lurralde-eremuan garatu beharreko obra txikiei buruz, eta obra txikietarako baimen-espeditenteak izapidetzea eta horien jarraipena egitea.

**D) Kultura:** Itziarko Auzo-Udalaren lurralde-eremuan kultura-ekimenak garatzeko eta era guztietako jaiak eta ekitaldiak antolatzeko laguntza tekniko eta administratiboko zerbitzuak.



DEBAKO UDALA



**E) Kirola eta gazteria:** Laguntza teknikoa ematea eskola-kiroleko jardueri, beste kirol-jarduera batzuei eta Itziarko Auzo-Udalaren lurralde-eremuan gazteei buruzko plangintza- eta garapen-ekimenei.

**F) Euskara eta Hezkuntza:** Itziarren euskara sustatzeko jarduerak planifikatzeko eta garatzeko behar den laguntza teknikoa, baita hezkuntza-arloko beste alderdi batzuk ere.

**G) Gizarte-zerbitzuak:** Oinarrizko gizarte-zerbitzuak emateko laguntza teknikoa; etxez etxeko laguntza, hirugarren adinekoentzako laguntza eta beste batzuk: hala nola arriskuen prebentzioa, genero-berdintasuna, gazteak, etab.

**H) Turismoa, landa-garapena eta geoparkea:** Debako Udalaren sustapena eta kudeaketa.

**I) Ordena Publikoa eta Herritarren Segurtasuna:** Ordena publikoa eta herritarren segurtasuna bermatzeko jarduerak planifikatzea eta koordinatzea.

**J) Obrak eta zerbitzuak:** Debako Udaleko udal-brigadari atxikitako langileek egingo dituzte eraikin, berdegune, parke, kale eta eskualdatutako bideen, hiri-altzarien, hilerri-zerbitzuaren, argiteriaren, ur-zerbitzuaren, jaien eta muntaketen mantentze- eta garbiketa-lanak, Itziarko Auzo-Udalari berariaz esleitu ez zaizkionak, hirugarren hizpaketan adierazitako mugen eta moduaren arabera. Brigada horri dagokio erantzukizun teknikoa. Itziarko Auzo-Udalak ezarriko ditu lehentasunak, Debako Udalaren koordinatuta.

**BEDERATZIGARRENA.-** Itziarko Auzo-Udalaren lurralde-eremuak udalerrri osoarekiko duen populazio-pisua eta bereganatutako eta eskuordetutako eskumen-maila kontuan hartuta, teknikari eta langile hauen % 10eko dedikazio eskusiboa ezartzen da: idazkaria eta aparejadorea.



Dedikazio hori egituratzeko, adostu egingo da teknikari, langile edo talde bakoitzak Itziarko Auzo-Udalarentzat eskusiboki lan egiteko asteko zein egun erabiliko duen.

Itziarko auzo-alkateak eta/edo Auzo Batzordeak ezarriko dute aipatutako teknikariek Itziarren arlo horri esleitutako dedikazio-denboran egin beharreko lanen lehentasun-ordena.

## **HAMARGARRENA.- GOBERNU-ORGANOEN KOORDINAZIOA ETA LANKIDETZA**

Hitzarmen hau sinatzen duten erakundeen jardunean eta funtzionamenduan koordinazioa eta lankidetzak bermatzeko, honako eginbehar hauek betetzeko konpromisoa hartzen dute:

a. Alkateek, bi entitateen ordezkari gisa, bilerak egingo dituzte (bietako edozeinek, arrazoituta, hala eskatzen duenean), eragiten dieten erabakiak hartu aurretik.

b. Debako Udalak eta Itziarko Auzo-Udalak elkarri bidaliko diote osoko bilkuretan aztertu beharreko gai-zerrenda. Debako Udaltzatzen bilkuretako gai-zerrendako gairen batek Itziarko Auzo-Udalaren interesei eragiten badie, haren ordezkariak horren berri eman ahal izango diote Udaltzatzen Osoko Bilkurari. Era berean, Itziarko auzo-batzordearen bilkuretako gai-zerrendako gairen batek Debako Udalaren interesei eragiten badie, Debako ordezkariak Auzo-batzordeari horren berri eman ahal izango diote.



DEBAKO UDALA



c. Debako Udalak Itziarko Auzo-Udalari bidaliko dio bere interesei eragiten dieten erabakien kopia. Era berean, Itziarko Auzo-Udalak Debako Udalari bidaliko dizkio bere interesei ere eragiten dieten erabakien kopiak.

### **HAMAIKAGARRENA.- JARRAIPEN BATZORDEA**

Jarraipen-batzorde bat sortuko da (Itziarko Mahaia), eta hura arduratuko da hitzarmenaren garapena eta betetzea egiaztatzeaz, bai eta haren aplikazioari eta interpretazioari buruz sortzen diren zalantzak argitzeaz ere.

Batzordea, alde batetik, Debako Udaleko alkate-udalburuak eta udalbatzan ordezkaritza duten alderdietako zinegotzi banak osatuko dute. Itziarko Auzo-Udalaren izenean, Auzo-alkatea eta batzarkide batek osatuko dute. Batzordearen bileretara idazkaria joango da, hitzarekin baina botorik gabe, eta, beharrezkoa izanez gero, kontu-hartzailea ere bai.

Debako Udaleko alkatea izango da batzordeburua. Batzordearen bileretara dei egin ahal izango die bestelako teknikari edo gaian espezializatutako langileei, behar diren aholkuak eman ditzaten.

Batzordea gaiek eskatzen duten maiztasunarekin bilduko da, gutxienez hiru hilean behin, lehendakariak bere ekimenez edo Itziarko Auzo-alkateak eskatuta, deialdia egin ondoren.

Deialdiak eta zitazioak bileraren eguna baino bi egun lehenago egingo dira gutxienez, gai-zerrendarekin eta, hala badagokio, aztertu beharreko gaiak hobeto ezagutzeko komeni den dokumentazioarekin.

Batzordeak aho batez hartuko ditu erabakiak. Hori ezinezkoa bada, akordioak gehiengo soilez lortuko dira. Berdinketa gertatuz gero, Debako Udaleko alkateak kalitatezko botoa izango du.





DEBAKO UDALA



Idazkariak bilera bakoitzaren akta egingo du, lehendakariaren oniritziarekin, eta, berehala betearazteari kalterik egin gabe, horren kopia igorriko die Batzordeko kideei. Hala ere, akta hurrengo bileran aurkeztuko zaio Batzordeari, onar dezan.

Itziarko Auzo-Udalak urtero aurkeztuko dio batzordeari, lehentasunez urtarrilean, hirigintzako eta zerbitzuetako departamentuen esku-hartzea eskatzen duten obren aurreikuspena, behar besteko aurrerapenez antolatu ahal izateko langileen eginbeharrak eta horiek zein garaitan gauzatu ahal izango diren.

## **HAMABIGARRENA.- HITZARMENAREN BESTE PRINTZPIO GIDARI BATZUK**

III) azalpenean jasotakoez gain, bi alderdiek adierazi dute beren harremanak administrazio-erakundeen arteko lankidetzaz eta lankidetzaz-irizpideen barruan kokatuko direla, tartean diren interes publikoak haztatuz eta errespetatuz, esleitutako eskumenak erabiltzea oztopatu gabe eta haien garapenean sor daitezkeen kontraesanak saihestuz.

## **HAMAHIRUGARRENA.- HITZARMENAREN INDARRALDIA**

Hitzarmen hau sinatu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Hitzarmena aldatu ahal izango da, halaber, indarrean dagoen legeria aldatzen bada, edo alderdiek hala eskatzen badute eta adosten badute.

Eta horrela jasota gera dadin, dagozkion ondorioetarako, hitzarmen honen bi ale sinatzen dituzte, goiburuan adierazitako tokian eta egunean.



DEBAKO UDALA

Gilen Garcia Boyra

Debako alkatea



Arantza Egaña Aldalur

Itziarko Auzo-alkatea